



Félix Iñurategi



Alberto Iñurategi



Josu Bereziartua

**Hiru  
espedizionariak**

## SHISHA PANGMA 8.027 m

Txema URRUTIA eta Pello ELORZA,  
Josu BEREZIARTUAK egindako kontaktaren arabera.

**Z**ORTZIMILAKO bat estilo erabat alpinoan, Kanpamentu Aurreratutik gailurreraino norberak soinean eraman dezakeen ekipoa besterik gabe egitea, aldaketa eta eraberritzearen erronka sentitzen dutenen eta kirol-ahaleginari, estrategiari eta teknikari mendi-gailurrari berari baino balio handiagoa ematen diotenen ametsa da.

Euskal Herriko mendizaletasunaren baitan espiritu horren ordezkari direnekin batera amets hori bizitzea inoiz ahaztu ezin den oparia hartzea da.

*Mendia  
oinarri-kanpamenduko  
lakuan isladatua*

—Hala ere...

## SHISHA PANGMA, 8.027 m


Hala ere... saiatu egin behar genuen. Dena oso azkarra izan zen, oso sakon eta trinkoa behintzat. Juanito Nyalán-eraino eraman behar larriak, handik Gasteiza lehen bait lehen ebakua-tua izan zedin, urduri eduki gintuen; Zulu elurpean estalia galdu izanak ere egundoko makilkada emana zigun; baina Juanito etxera bidean zela jakitearen lasaitasunaren eta denbora aurrera joanaren beraren eraginez gauzak poliki-poliki bere tokira bihurtzen ari ziren. Aurreko egun haietan gertatu zitzaiguna eta han zer egiten ari ginen, zenbaterainokoak ziren gelditzen zitzaizkigun kemen eta indarrak eta hauek aprobeztatze-ko aukerak baloratzeko gauza izan behar genuen.

Zenbait telefono-dei egin genituen etxera eta etxekoekin eta hainbat lagunekin komentatu genuen egoera... Ez zen erabaki garbia inorentzat baina, gauza guztien gaintetik, saiatu egin behar genuela zirudien. Horretara ioanak baikin

*Josuk atera zion argazki hau Zuluri, honen bizitza akabatu zuen elurroldea gertatu baino zertxobai lehenago*



**Nylan (ezkerretara) eta Tooth (eskumatara) haitzak. Azken honetan gertatu zen istripua**



### **Irailaren 16a. Dena amaitua da!**

Hori izan zen aurrena pentsatu nuena elur-jausia gertatu zen tokira iritsi eta Zulu ez zegoela eta Juanito erabat txikituta, oso egoera larrian zegoela ohartu nintzenean.

Zazpi kideok Oinarrizko Kanpamentua antolatu genuenetik estaltzen gintuen eguraldi txarra eguneroko kontua zen, beti estalirik eta egunero elurra izaten genuelarik, nahiz eta gauez ez zuen izozten, baina igoeraren bat egin beharra geneuen, gauren bat behintzat 6.000 metrotik gora egiteko eta horrela gure aklimatazioa hobetu, 5.700 metrotara jarrita genuen material-depositora egiten genituen igoerak ez baitziren nahikoa.

Zulu bera zen, hain zuzen, aklimatazioa azkartzeko gehien zirikatzen zuena, denbora



**Oinarri-kanpamenduaren apaindura izugarria**

aurrera baitzihoan eta eguraldi-aldaketaren bat gerta zitekeela eta presst egon behar baikeuen.

Nire ustez, mendi honen arazorik handiena aklimatazio ona lortzea da, inguru hurbi-lean ez baitu 6.500 metrotik gorako mendirik. Baina horren ordainetan 8.000 metroen muga doi-doi gainditzen dituen mendi-gailurra dugu.

Ice Tooth-era igotzea pentsatu zutenean, nik gelditzea erabaki nuen. Ez dakit, ez zitzaidan batere gustatzen elur berriz betetako pala handi hura. Ni ez nintzen joango. Felix nirekin gelditu zen eta tontor txiki bat igo genuen.

Oinarrizko Kanpamentura itzuli ginenean, mendi-gailurrera iritsiak zirela jakinarazi ziguten hara joan zirenek eta beherako bideari ekitera zihoazela esan zigutenean, lagunei otordua prestatzea erabaki genuen.

Dagoeneko gehiegi atzeratzen ari ziren gure ustetan eta hara non agertzen zaigun Juan Vallejo aurpegia erabat odolduta eta bere onetik irtenda: Istripu bat gertatu da!

**- Baina zer diozu! Zer gertatu zaizue?**

- Elur-jausi bat. Besteak ateratzera joan behar dugu.

Berehala prestatu ginen eta abiatu. Albertok ordurako Juanito arrastaka erama-na zuen morrena batera eta haraino igo ginen. Bera ere Juan Vallejok atera behar izan zuen elurpetik.

Aurrean genuena ikaragarria zen: Zulu falta zen eta Juanitok errukia ematen zuen. Dena bukatu da!- esan nion neure buruari.

- Zer egin behar dugu? Ohatilaren bat edota kamara hiperbarikoa ekarri behar dugu Juanito lehen bait lehen behera eramateko!

Neu jaitsi eta kamararekin igo nintzen berriro. Katalandarren espedizioko medikuari esker berpiztu zen Juanito, nahiz eta sendagilea bera ez egon oso ziur lortuko zuenentz.

Ni orduan indartsu nenbilen, eta horrela jarraitu nuen gure Juanito Nyalan-en etxera bidean "seguru" izan genuen arteko egunetan. Orduan etorri zitzaidan mundua gainera. Orduan jabetu nintzen ni gertatzen ari zitzaigunaz.

## Azkenean pareta ikusten dugu

Ilargi betea aprobetxatuz depositotik gailurrera ekitaldi batean igotzea izan zen burura etorri zitzaigun lehenengo ideia, bibakik ere egin gabe, takada batean, gau eta egun eskalatuz.

Hilaren 21etik berriro Oinarrizko Kanpamentuan genbiltzan eta eguraldiak lehen-goan jarraitzen zuen, batere hobetu gabe. Ilargi betea igaroa zen, guk ikusteko aukerarik gabe, eta urriaren 4 edo 5era arte ezinezkoa izan zitzaigun pareta lainorik gabe ikustea.

## Ikusi genuenean, ez genuen inolako zalantzarik izan. Gure esku dago!

Eguraldi ona izaten hasi ginen, oskarbi eta elurrik egin gabe; hotza ere hasi zitzaigun eta hotz horren eraginez paretako elurraren egoera hobetzen ari zela konturatu ginen baina, ilargiaren laguntzarik ez genuenez, estrategia aldatu egin behar izango zen.

Goizean goiz aterako ginen, lehenengo gaua depositoan igarotzeko (5.700 metro-tara) eta hurrengo gauean 7.000 metro-tara bibaka eginez gailurrerako ekitaldia egin. Eta handik berriro beste bibak batera jaitsi, hurrengo egunean Oinarrizko Kanpamentura iristeko aukera izan genezan.

Oinarrizkotik hilaren 9an aterako ginen. Katalanak espedizioa bertan behera utzi eta etxeratze-kotan zirela aprobetxatuz, hainbat mezu bidali genituen Kathmandurako itzulerara egunik galdu gabe egiteko modua izan genezan. Eta hau, nik ez dakit nola, xuxentasan osoz lortu genuen.

Guk egin behar genuena (4 egun Oinarrizko Kanpamentutik gailurrera eta handik itzultzea), gainotzekoa baino askoz errazagoa zen: 5 egun Oinarrizko Kanpamentutik etxera.


Mezu haietan argi eta garbi zehazten genuen abereek (yak-ak) Oinarrizko Kanpamentuan hilaren 13rako egon behar zutela; era berean, jeep-a Nyalan-en 14rako eta Kathmandu-n hegazkin-txartelen aldaketa 17rako.

Hilak 9. Gaur ateratzen gara goruntz eta 10 egun barru etxean

Eguraldiak egonkor eta oskarbi jarraitzen zuen eta, hurrengo egunetarako eguraldi-albisteek ere gauza bera ematen zuten, goizean goiz atera ginen depositoan lo egiteko.

Hilaren 10ean, esnatzean, muturrak ebakitzeko moduko hotza zegoen; hau seinale ona zen eta pasabideko zatirik bertikalenari (1.000 metrotik gora, %55-60ra etengabe) ekitera gindoazen.

Elurra oso egoera onean zegoen eta kranpoien muturretan eutsiz gindoazen aurrera. Oso igoera azkarra eta segurua baina, aldi berean, zango-sagarrentzat oso neketsua, bertikaltasunak hain denbora luzean jarraitzen zuenez.



*Kanpamendu aurreratua 5.750 metro-tara*

6.400 eta 6.700 metro artean, gutxi gora behera, izotza kristal hutsa zen. Beirazko botila handi batean gora gindoazela iruditzen zitzaigun. Kontuz ibili beharreko zatia zen, torniloak jarri edota pioleta sartzeak egundoko lana ematen baitzigun.

Pasabideetan ohizkoa den kordadan lotuta gindoazen gora, 60 metro-tako luzeretan, beti ere Alberto genuela gidari, hura baitzen indartsuena zebilena eta, beharbada, guztiotan motibatuena ere. Hirugarrena elkartzeko-gunera iristen zenerako material gutzia jasota, hura berriro abiatzeko prest zegoen.

12 edo 13 ordu eskalatzen aritu ondoren, 7.000 metro-tan bibaka prestatu genuen, jadanik paretaren 1.200 metrorik bertikalenak gainditurik genituela. Gainontzekoa aldapa txikiagokoa zen, nahiz eta beti ere %50etik gorakoa izan eta aurretik egindako zatiak bezain jarraia.

## Alberto, beti Alberto

Hilaren 11an, goizaldeko 5:30etan abiatu ginen gailurrerantz eta nik bezperan baino astunago sentitzen nuen neure burua, doidoi lortutako aklimatazioaren eraginez, zalantzarik gabe. 20 gradu zeropetik edo geunden.

Alberto jarri zen berriro ere tiraka, paretan gora sokak jartzen aurrena zihona bera zen. Eta horrez gain, igoera bidez filmatzeko astia ere hartzen zuen. Alberto, beti Alberto!

Gailurrerako 150en bat metro falta zirela, pasabidetik irtetea, ertz zorrotz batek bidea oztopatzen digu; ondotik pasa behar dugu, nahitaez, gora iristeko, Iparraldeko isurbide-ara pasatuz. Zirraragarria da isurbide honek agertzen duen itxura, malda bertikal-bertikal bat, edozein unetan erortzeko zorian zegoela zirudien elur-hautsez eta plakaz betea.



Alberto sartzean, agian hiru aste lehenago Zulu aurretik eraman zuen eta berari ere ia-ia bizia kendu zion elur-jausi hura gogoratzeak gorputza zurrundu zion eta, egin zituen keinuengatik eta Felixi bota zion begiradagatik, garbi nabaritzen zen ez zela gurutzatzera ausartzen.

Felixek txanda hartu zion eta bi jauzi eginenez krestaren gainean jarri zen, aristaren beste aldean. Handik gailurrera ez zitzaigun arazorik gabeko kresta arin bat besterik gelditzen.

10 metro falta zirela, Alberto gelditu egiten da, motxila irekitzen du, tripodeta eta bideokamara prestatzen ditu eta "aurrera, mutilak" esaten digu.

### Gailur desberdina

Gora iristea eta Felix eta biok elkar besarkatzea gauza guztiz berezia izan zen. Oso esperientzia sakona izan zen eta hiruron artean sortu zen bibentzia hura kontaezina, paregabea da; konpenetrazio osoa eta 10 urte lehenago Himalaiara joaten ziten espedizioetan berriztatzaileenak zirenen ametsa besterik ez zena lortzea: zortzimilakoak bide zuzenetatik igotzea, estilo erabat alpinoa erabiliz eta azkartasunari lehentasuna ematen dioten estrategiak erabiliz; Kanpamentu Aurreratutik gailurreraino norberak soinean eraman dezakeen materialarekin bakarrik; soka finkorik gabe, oxigenorik gabe... Guk lortu berria genuen hori.

Nere ustez, belaunaldi berri bateko estiloa eta garaia da, askoz informatuagoa, fisikoki askoz ere prestatuagoa eta ausartagoa

### Vivacerako eremua 7.000 metrotan



### Shisha Pangmaren azken ertza. Atzekaldean Everest, Makalu...

den belaunaldi batena. Uste dut, gainera, Felix eta Alberto zortzimilakoan igoeretan erabat berriztaileak direla, Euskal Herrian egiten den mendizaletasunaren mailan behintzat.

Duela bi urte soilik, esate baterako, pareta hau berau 2.000 metro soka fijo jarrita egiten ahalegindu zen Koreako espedizio bat.

Gu, berriz, oso bestelakoa zen esperientzia bat biziak ginen. Agian, igoera tipo hau egiteko hiru laguneko taldea da egokiena. Guretzat, behintzat, oso ederra izan da.

### Tibetarren eta Nepaldarren sinkronizazioa

Jaitsiera Ifarraldeko paretan behera egiten dugu eta, 7.800en bat metrotara bibaka egin ondoren, zeropetik 35 gradu ingurutara, berriro ere Hegoaldeko isurbidera bideratzen gara 7.000 metrotara eta beherantz jarraitzen dugu, Base Aurreraturaino, gure depositoraino alegia, eta hura jaso ondoren Oinarrizko Kanpamenturaino jaisten jarraitzen dugu, dagoeneko yak-ak zain baititugu.



Argazkiak: Inurrategi anaiak eta Josu Bereziartua

**Josu, Félix y Albertoren artean, Shisha Pangmaren gailurrean**

Denborak inolako eraginik ez duen leku haietarako harritzekoa den sinkronizazioarekin, eskatutako jeep-a ere Nyalan-en zegoen, autobusa Kodari-ko muga-pasabidean eta hegazkin-txartelak prest Kathmandu-n 17rako, hamar egun lehenago pentsatu genuen bezalaxe.

Eta Sondikan, egiten duzuna ulertzen duten pertsonen besarkada eta berotasuna,

bizi izan duzun abentura eta lortu duzun gailurratik duzun poza begirada bakar batekin konpartitzen dutenen ongietorria eta, aldi berean, zuk zeuk duzun mendia ulertzeko modu bera zuen laguna han, elurpean, betirako gelditu delako duzun tristura. □

**FICHA TECNICA**

**Diario de la expedición**

- 4 de setiembre: Salida de Bilbao**
- 5 de setiembre: Legada a Kathmandú
- 8 de setiembre: Kathmandú-Kodari (frontera)
- 9 de setiembre: Kodari-Nyalam
- 10 de setiembre: Nyalam
- 11 de setiembre: Marcha de aproximación
- 12 de setiembre: Marcha de aproximación-C. B.
- 16 de setiembre: Ice Tooth (6.200 m). Accidente
- 18 de setiembre: Descenso hacia Nyalam
- 19 de setiembre: Llegada a Nyalam
- 21 de setiembre: Nyalam-Campo Base
- 22 de setiembre: Campo Base-C. B. A. (5.750 m)
- 23 de setiembre: C. B. A.-6.400 m - C.B.A.
- 24 de setiembre: C. B. A.-Campo Base
- 30 de setiembre: Campo Base-C.B.A.
- 1 de octubre: Campo Base Avanzado**
- 2 de octubre: C. B. A.-Campo Base
- 9 de octubre: Campo Base-Base Pared (5.700 m)
- 10 de octubre: Base Pared 7.100 m
- 11 de octubre: 7.100-Cumbre (8.027)-7.800 m**
- 12 de octubre: 7.800 m-Base Pared
- 13 de octubre: Base Pared-Campo Base
- 14 de octubre: Campo Base-Nyalam
- 15 de octubre: Nyalam-Kathmandú
- 17 de octubre: Kathmandú-Delhi
- 18 de octubre: Delhi-Bilbao**

**Componentes:**

Josu BEREZIARTUA, Félix IÑURRATEGI y Alberto IÑURRATEGI

Información facilitada por Alberto Inurrategi


**RESUMEN**

**Shisha Pangma 8.027 m. cara SW**

**L**AS avalanchas que el 16 de setiembre segaron la vida de Jose Luis Zuloaga "Zulu" y pusieron seriamente en peligro la de Juanito Oiarzabal, no lograron sin embargo, aunque la decisión no era fácil y estuvieron a punto de hacerlo, echar por tierra el proyecto vanguardista que había llevado hasta el Shisha Pangma al grupo formado por los hnos. Inurrategi y Josu Bereziartua.

El mal tiempo constante les forzó a apurar la única oportunidad clara y lograron hacerlo dentro de la dinámica que habían planteado previamente: estilo puramente alpino desde la Base Avanzada hasta la cima y descenso, sin más material que el que fueran capaces de llevar encima, sin cuerdas fijas y haciendo un vivac en la ascensión y otro en el descenso (a 7.000 y 7.800 m respectivamente).

La suerte les acompañó también en el regreso a casa, que pudieron realizar en solamente cinco días desde el Campo Base hasta Sondika.



**RUTAS ABIERTAS EN EL SHISHA PANGMA**

- 1. Cresta Norte, con travesía a 7800 m. (Ruta china original): 2-5-64, por diez escaladores (cuatro de ellos, tibetanos).
- 2. Cara SO (Británica): 28-5-82 Doug Scott, Alex MacIntyre y Roger Baxter-Jones. (Así como la Expedición Vasca, 1996).

3. Cresta Norte, vía cima central (Normal): 18-9-87 Carlos Carsolio y Elsa Avila (mejicanos), Ramiro Navarrete (ecuatoriano) y Ryszard Warecki y Wanda Rutkiewicz (polacos). Al parecer, este grupo fue el primero en realizar la conexión entre las cimas central y principal; mientras que el alemán Gerhard Schmatz, en solitario, fue el primero en

## ASCENSOS AL SHISHA PANGMA (8.027 m)

N.º	PAISES	64	80	81	82	83	84	85	86	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	ASC	REP	PER	MUJ
1	Alemania		6			3					9		1	3			1	1	2	26		26	(3)
2	China	10		2													8			20	1	19	
3	Austria		2					11			3		1	3						20	1	19	
4	Japón			1	6						3	3								13		13	(1)
5	Estados Unidos					3	6			1										10		10	
6	Suiza							5										1	3	9		9	
7	Italia			2				1			4					1				8		8	
8	España												6			2				8		8	
9	Polonia									4						2				6		6	(1)
10	Hungría									6										6		6	
11	Reino Unido				3					1							1			5		5	
12	Nueva Zelanda									4										4		4	
13	Eslovenia											4								4		4	
14	Francia										2					1				3		3	(1)
15	Euskal Herria																		3	3		3	
16	México									2										2		2	(1)
17	Corea del Sur													2						2		2	
18	Eslovaquia																	2		2		2	
19	Ecuador									1										1		1	
20	Grecia																	1		1		1	
21	Nepal																	1		1		1	
<b>TOTALES</b>		<b>10</b>	<b>8</b>	<b>5</b>	<b>9</b>	<b>6</b>	<b>6</b>	<b>17</b>	<b>0</b>	<b>19</b>	<b>21</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>8</b>	<b>0</b>	<b>6</b>	<b>10</b>	<b>4</b>	<b>10</b>	<b>154</b>	<b>2</b>	<b>152</b>	<b>(7)</b>

ASC: Número total de ascensiones individuales.

REP: Repeticiones.

PER: Personas.

MUJ: Mujeres.

• No hubo intentos al Shisha Pangma entre 1964 y 1980.

• De las 20 ascensiones chinas, 14 fueron realizadas por escaladores tibetanos.

• En el número de ascensiones de España, no se incluyen las tres realizadas por vascos.

• La primera mujer en escalar el Shisha Pangma fue la japonesa

Junko Tabei, el 30-4-81 (tras su primer ascenso femenino al Everest, realizado en 1975, Tabei se convertía en la primera mujer en lograr dos ochomiles). En total, siete mujeres han logrado la cima principal del Shisha Pangma, mientras otras 22 se quedaron en la central.

• El escalador de más edad es Balthasar Kendl (austriaco), 12-5-85, con 59 años.

• El más joven, Hirofumi Konishi (japonés), 10-10-82, con 20 años.

• Los dos repetidores son Thomas Schilcher (austriaco), el 12 y 19 de mayo 1985; y Gyalbu (tibetano), 30-4-81 y 7-5-94.

### ASCENSIONES INDIVIDUALES

Ruta China original .....	109
Ruta Británica .....	11
Ruta Normal .....	23
Ruta Polaca (Kukuczka) .....	2
Ruta Anglo-americana .....	2
Ruta Eslovena directa .....	2
Ruta Eslovena indirecta .....	4
Ruta Polaca (Wielicki) .....	1

**TOTAL .....** 154

### LAS VICTIMAS DEL SHISHA PANGMA

N.º	ESCALADOR	NACIONALIDAD	FECHA	CAUSA	ruta
1	Fritz Luchsinger	Suizo	28-04-83	Enfermedad	Normal
2	Luca Leonardi	Suizo	4-10-89	Avalancha	Normal
3	Joan Martínez+	Español	15-10-90	Agotamiento	China
4	Werner Braun	Alemán	22-05-91	Prob. avalancha	Normal
5	Werner Meichsner	Alemán	22-05-91	Prob. avalancha	Normal
6	Günther Semmler	Alemán	22-05-91	Prob. avalancha	Normal
7	Karl-Heinz Thiele	Alemán	22-05-91	Prob. avalancha	Normal
8	Hidezaku Gomi	Japonés	20-09-91	Avalancha	China
9	Tetsuichi Miyashita	Japonés	20-09-91	Avalancha	China
10	Park Bueoung-Tae	Surcoreano	29-09-93	Caida	Normal
11	Tod Gassen	Americano	18-09-94	Caida	Normal
12	Zdenek Slachta	Checo	1-10-94	Avalancha	Cara SO
13	Stefan Sluka+	Eslovaco	1-05-96	Desaparecido	China
14	Viktor Pastukh	Ucraniano	5-10-96	Avalancha	Normal
15	Gennady Vasilenko	Ucraniano	5-10-96	Avalancha	Normal

+ Los dos escaladores señalados con una cruz perecieron durante el descenso de la cima principal.

• No se incluye en esta lista la muerte de José Luis Zuloaga, el 16-09-96, ya que ésta ocurrió durante el periodo de aclimatación en un pico diferente.

**Datos estadísticos preparados por Kartajani**

alcanzar la cima central, 29-4-83, siguiendo la ruta que llegaría a convertirse en normal. Esta es usada hoy día por gran número de expediciones, la mayoría de las cuales -250 ascensiones hasta la fecha- finalizaron su esfuerzo en la cima central (8.008 m), sin intentar la continuación a la principal.

4. Cresta Oeste, vía cimas Oeste y Central (Polaca): 18-9-87 Jerzy Kukuczka y Artur Hajzer, los cuales coincidieron en la cumbre con el grupo antes citado.

5. Cara NO, couloir central, vía cima central (Anglo-americana): 19-9-87 Alan Hinkes (británico) y Steven Untch (EE.UU.).

6. Cara SO (Eslovena directa): 19-10-89 Andrej Stremfelj y Pavle Kozjek (siguiendo el pilar situado a la izquierda de la ruta británica).

7. Cara SO (Eslovena indirecta): 20-10-89 Viki Groselj y Filip Bence (esta ruta coincide en su mayor parte con la utilizada en 1982 por los británicos en su descenso).

8. Cara NO, couloir izquierdo, a cima central (Esprit d'Equipe): 12-5-90 (sin continuar a la cima principal) Benoît Chamoux, Frédéric Valet, Yves Detry y Pierre Royer (franceses), Josef Rakoncaj (checo), Alan Hinkes (británico) y Mauro Rossi (Italiano).

9. Cara SO, sector izquierdo, a cima central (Suizo-polaca): 3-10-90 (sin continuar a la cima principal) Erhard Loretan y Jean Troillet (suizos) y Wojciech Kurtyka (polaco).

10. Cara SO (Polaca): 7-10-93 Krzysztof Wielicki, en solitario (siguiendo el couloir situado a la derecha de la ruta británica)

11. Cara SO (Catalana): 24-9-95 (sin alcanzar la cima principal) Josep Permanyer y Carles Figueras (siguiendo el couloir situado a la derecha del de Wielicki, consiguen una antecima inmediatamente al Este de la cumbre).

12. Ruta de descenso de los británicos. (Así como de la Expedición Vasca, 1996).

A. La ruta Kurtyka / Loretan se dirige a la cumbre central (oculta).

B. Cima principal (Este) de 8.027 m.

C. Punto alcanzado por Permanyer y Figueras.

D. La cumbre Oeste 7.969 m es la situada a la izquierda.